

BALIO PROPOSAMENA

Energia iturriak oso mugatuak daude, oso garestiak eta gainera munduaren egoera larria da sortzen dugun kutsadurarengatik. Gure produktuaren bitartez edozein momentutan, era errazean eta eskuragarrian energia garbia lortu daiteke, ingurunea errespetatuz eta honi kalterik egin gabe.

Gure produktuaren antzekorik ez daude eta beraz, konpontzen dituen beharrei aurre egiten dion bakarra da, hau da, produktuaren berritasuna eskaintzen dugu. Oso erabilerreztasuna handia du eta produktua duen diseinua kontuan hartuta, oso txikiaenez, ikusezina da lehen begirada batean, hori dela eta kotxearen diseinuan ez du eraginik izango.

Hainbat arazoei konponbidea eskaintzen saiatzen gara, dirua aurrezteko helburu eta horretarako kotxearen mugimenduaren egunerokotasunean oinarritzen da. Gure produktua kotxeko bateriari beste energia iturri bat emango dio eta horrela, bere jomuga bateriaren energia ez amaitzea eta erabilera luzeago bat ematea da. Honi esker, kotxearen mugikortasuna errazten dugu bidai seguru bat izateko, familiak, lagunak... ondoan izanda.



Horrez gain, gure lana ez da hor amaitzen, haratago goaz, beste energia berriztagarri duen iturri bat aurkitu baitugu egunerokotasunean erabiltzen ditugun gailuentzako. Honek ez du bakarrik energia sortzen, zure osasunean onura ekarri dezake. Energia hau sortzeko gorputzaren hezetasuna behar da, eta modurik azkarrena hori lortzeko kirola egitea izan daiteke, baina ez da beharrezkoa kirolari izatea edozeinek egin dezaketelako. Hau, ez da modu bakarra energia lortzeko, beste modu desberdinak ere daudelako, hezetasuna edozein lekutan aurkitu dezakegulako; etxean, parkeetan, basoetan... alegia.

Honek hornitzen du zure etxera heltzen zaizkizun elektrizitateko fakturaren prezioak murriztea, produktu honekin etxean ez duzulako behar hainbeste aparatua kargatzea.

Proiektu honen bidez bidaiatzea, leku berriak ezagutzea, esperientzia berriak izatea, bizi osasuntsu bat izatea... eskaintzen dugu.